



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **KOLONIALISMOA NOLA GAINDITU**

## **LITERATURAREN BIDEZ**

### **GRADU AMAIERAKO LANA**

### **LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2021**

EGILEA: Lopez Aparicio, Jaione.

ZUZENDARIA: Perales Fernández de Gamboa, Andrea.

## **LABURPENA:**

Kolonialismoaren ondorioz, munduko herrialde asko, baina Afrikako herrialdeek bereziki beren nortasuna galdu dute, sustraietatik erauziz, alde batera utziz eta gutxietsiz, horrela mendebaldeko tradizio eta ohiturak inposatzeko. Erakundeak historian zehar prozesu horretarako erabili diren bitartekoak dira, eta gaur egun ere erabiltzen dira mendebaldeko kosmobisioa sustatzeko, batez ere, hezkuntzaren bidez. Lan honen ardatza Turkana konderrria da, Keniako iparraldean kokatuta dagoena. Bertako tribuko pertsonak nahiko errotuta dauden ohiturak dituzte, nahiz eta ohitura horiek baztertzeko eta mendebaldekoen antzekoagoak diren beste batzuk hartzeko presio handia izan. Mendebaldeko ohiturak inposatzeko bitartekoetako bat, haien ama-hizkuntza desagerraraztea da; Turkana hizkuntza. Horretarako, ikastetxeetan Keniako bi hizkuntza ofizialetan bakarrik ikas daiteke: ingelesez (koloniako hizkuntza) eta suajiliz.

Ondorioz, egindako analisiak lau zati ditu: lehenik eta behin, lanaren sarrera labur bat egingo da, gaia eta helburuak azalduko dituena; bigarrenik, alderdi kontzeptualak landuko dira: zer ulertzen den «kolonizazio» gisa, prozesu hori nola eman den Afrikan eta, bereziki, Kenian, eta hezkuntzak prozesu horretan izan duen zeregina ere azalduko da; ondoren, ipuinek gizabanakoen identitatearen eraikuntzan betetzen duten papera aztertzen da eta materialen falta nabaritu ondoren, bertan sortutako proposamen didaktiko bat aurkezten da, material antiarrazista eta anticolonialista aurkezteko asmoz; azkenik, ondorioak azaltzen dira.

*Kolonialismoa, hezkuntza antiarrazista, kulturartekotasuna, literatura, ahozkototasuna.*

## **RESUMEN:**

Debido al colonialismo, muchos países han perdido su identidad, arrancándola de sus raíces, dejándola a un lado y menospreciándola, para así imponer las tradiciones y costumbres occidentales. A lo largo de la historia e incluso hoy en día, las instituciones son el medio utilizado para fomentar la cosmovisión occidental, sobre todo, a través de la educación. En este trabajo vamos a analizar la situación del condado Turkana, situado en el norte de Kenia. Las personas de esta tribu tienen hábitos y costumbres bastante arraigadas, a pesar de la fuerte presión institucional para rechazar esos hábitos y adoptar otros más similares a los occidentales. Uno de los medios utilizados para imponer las costumbres de los países imperialistas es la erradicación de su lengua

materna, la Turkana. Para ello, en los colegios sólo se puede aprender a través de las dos lenguas oficiales de Kenia: inglés (lengua de la colonia) y suajili.

En consecuencia, el análisis realizado consta de cuatro partes: en primer lugar, se realizará una breve introducción del trabajo que explicará el tema y los objetivos de este; en segundo lugar, se abordarán los aspectos conceptuales: qué se entiende por «colonización», cómo se ha dado este proceso en África y, particularmente en Kenia, y el papel ejercido por la educación en dicho proceso; a continuación, se analiza el papel de los cuentos en la construcción de la identidad de los individuos y, tras la falta de materiales encontrados, se presenta una propuesta didáctica creada en Kaikor (el poblado en el que se realiza), con el fin de presentar un material antirracista y anticolonialista; finalmente, se exponen las conclusiones.

*Colonialismo, educación antirracista, interculturalidad, literatura, oralidad.*

## Aurkibidea

1. SARRERA .....	5
2. JUSTIFIKAZIOA:.....	6
3. MARKO TEORIKOA.....	7
3.1. Kolonizazioa: Mundu modernoaren eraikuntza prozesua .....	7
3.2. Afrikako kolonizazioa .....	10
3.2.1. Kenia: Kolonia izatearen eragina .....	12
3.3 Pedagogia kolonialista eta arrazistaren ezaugarriak .....	14
3.3.1 Proposamen antiarrazista eta antikolonialista bat eraikitzeke ezaugarriak .....	17
4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA .....	18
4.1 Testuingurua.....	18
4.2 Metodologia.....	21
4.3 Proposamen didaktikoa .....	24
4.3.1 Nola eraiki material didaktiko antirrazista? .....	24
4.3.2 Fabula eleanitza: ahozkotasuna lantzen.....	25
5. Ondorioak .....	29
5.1 Mugak eta Hobetze proposamenak .....	31
6. ERREFERENTZIAK:.....	33
7. Eranskinak.....	34
7.1 Ipuina ilustrazioekin.....	34
7.2 Argazkiak .....	400

## 1. SARRERA

Kolonialismoa, beste hainbaten artean, Britainiar Inperioak XVI. mendetik XX. mendearen erdialdera arte nahiko maiz aurrera eraman zuen prozesu bat da. Kolonialismoaren bidez, potentzia militarrek kolonizatutako lurraldeen eta baliabide ekonomikoen jabe egiten dira. Aldi berean, jatorrizko biztanleak mendekotasun egoeran geratzen dira, hau da, diskriminazio eta menderatze kultural, sozial eta politikoa.

Mendekotasun historiko hori arlo guztietan gertatu zen, eta hezkuntza nagusitasun kolonialak eragin handiena izan zuen gizarte-guneetako bat izan zen. Horretarako, kolonizatzaileek ez zuten bertako ezagutzaren aztarna oro bakarrik suntsitu, baizik eta, hezkuntza- eta kultura-erakunde oro ere, memorizazio pasiboan eta errepikapen hutsean oinarritutako hezkuntza alienatzailea ezarriz. Beraz, hezkuntzak lau dimentsio bereiztu zituen, gaur egun oraindik, haien aztarnak ikus daitezkeenak: antropozentrismoa, epistemozentrismoa, logozentrismoa eta falozentrismoa (Solano Alpizar, 2015, 118 or.).

Dimentsio horiek gaur egun "globalizazioa" deritzogunaren oinarria dira. Beraz, kolonialismoa erabat desagertu al da?

Lan honen bidez, hainbeste aldiz entzun dugun baina garrantzirik ematen ez diogun "kolonialismoaren" kontzeptuan sakonduko dugu. Bada, aipatu dugun moduan, kolonialismoa "botere gutxi" duten herrialdeetako kulturak aldatu eta suntsitu dituen prozesua da. Lan honetan, Afrikako kolonizazio-prozesuan jarriko dugu arreta, Keniakoan, zehazki.

Gaur egun oraindik, Keniako hizkuntza ofizial bat ingelesa da, eta hau, kolonialismoaren ondorioetariko bat besterik ez da. Prozesu horrek herrialde honetako biztanleei nola eragiten dien ikusiko dugu, zehazki, jasotzen duten hezkuntzaren bidez. Alor honetan, Keniako hezkuntza gehienbat ingelesez ematen da, suajiliz ematen den ikasgairen bat izan ezik. Horrek hezkuntzan jatorrizko hizkuntzak alde batera uzten direla aurkezten du. Beraz, liburu-dendetan aurki daitezkeen materialak suajiliz eta ingelesez idatzita daude. Horrek esan nahi du hurrek pixkanaka beren ama-hizkuntza alde batera utzi behar dutela hizkuntza ofizialak eskuratzeko.

Lan honen bidez, Keniako testuliburuak eta curriculumak aztertuko ditugu. Bertan, hezkuntza-material hauek mendebaldeko pentsamenduetan oinarrituta daudela ikusiko

dugu. Ondorioz, ikastetxeetan erabiltzen diren literaturazko liburu gehienak ingelesez idatzita daudela ikusiko dugu.

Hori dela eta, lan honek haurren ama-hizkuntzan eta identifikatuta sentitzeko moduko protagonistekin eta istorioekin haurrentzako ipuinak sortzeari buruzko proposamen didaktiko bat aurkezten du. Helburua beraz, hainbat material ama-hizkuntzan erabiltzearen abantailak aurkeztea da.

Haur-literatura tresna bat da, zeinen bidez, haurra irudimenaren garapenera, emozioak adieraztera eta ingurunea ulertzera eramaten du. Azkenik, esan beharra dago, haurren ingurunean oinarritutako literaturak haurren garapen sozial, emozional eta kognitiboari laguntzen diola, eta gizartearekiko prestakuntza kritikoagoa, arduratsuagoa eta interaktiboagoa lortzen laguntzen duela (Experiencias educativas, 2018).

## **2. JUSTIFIKAZIOA:**

2018an lan hau oinarrituta dagoen Keniako herrixkara joateko aukera izan nuen, Kaikorrera. Herrixka horretan, bertan ematen den heziketaren partaide izateko aukera eduki nuen. Urte hartan hilabete bat baino ezin izan nintzen egon, baina denbora nahikoa izan zen inguru horretako ikastetxeetan erabiltzen zituzten hezkuntza-materialak urriak zirela eta bertako ikasleen ezaugarriak eta haien kultura kontuan hartzen ez zituztela konturatzeko.

Turkanako (Kaikor dagoen konderrria) hainbat ikastetxetako irakasleekin hitz egin ondoren, eskolan lantzen diren kontzeptuak eta edukiak mendebaldeko pentsamenduan oinarrituta daudela konturatu nintzen; bada, Kenia Erresuma Batuko kolonia izan zen 1963. urtera arte. Horrek eta Keniako esperientziaren hurrengo ikasturtean Kulturarteko Hezkuntzako minorra egin izanak bide eman zioten lan honi.

2020an, berriz ere herrixka berera joan nintzen, hainbat hezkuntza-proiektuetan laguntzeko asmoz, baina aste horretan bertan COVID-19 kasuak iristen hasi ziren, eta Keniako presidentek ikastetxeak ixtea erabaki zuen. Eragozpen horrek aukera eman zidan Turkanako kultura hobeto ezagutzeko eta, horrela, ahozkotasanak bere tradizioetan duen garrantzia ikusi ahal izateko. Tribu honetan ahoz kontatzen diren istorioak ikastetxetan lantzen den haur-literaturarekin alderatzean, Chimamanda Ngozi Adichiek (2018) idatzitako liburuan kontatzen duen ideia nagusia islatuta ikus nezakeen: literaturan kultura ezberdinen erreferente eza dago.

Kenia tribu askok osatzen duten herrialdea da, hau kulturalki aberatsa bihurtuz. Horrela izan arren, jasotako hezkuntzari esker, tradizio kultural eta hizkuntza ezberdin

hauek pixkanaka desagertzen ari dira, hezkuntzak mendebaldeko ohitura batzuen asimilazioa sustatzen ari baita. Beraz, lan honetan aurkeztutako proposamen didaktikoa erronka bat da, baita minorrean ikasi nituen baliabideak praktikan jartzeko modu bat ere. Alde batetik, hautemandako materialen beharrea oinarritutako proposamena da, eta, bestetik, kultura Turkana hezkuntzan sartzeko nahian, Keniako hizkuntza ofizialekin batera, tribu honen hizkuntzaren erabilera sustatuz.

### **3. MARKO TEORIKOA**

#### **3.1. Kolonizazioa: Mundu modernoaren eraikuntza prozesua**

Kolonizazioa zibilizazio handien hedapenarekin eman den fenomeno natural eta unibertsala da. Fenomeno naturala dela esaterakoan, gizartean gertatu behar den fenomeno baten moduan hartzen delako da; hau da, gizakiok lurralde bat kolonizatu izan dela jakiterakoan ez gara harritzen –batez ere, kolonizatzen duen herrialdea mendebaldekoa baldin bada- toki askotan eta modu orokorrean gertatu den fenomeno bat izan delako. Kolonizazio prozesuaren bidez, konkistatzaileek beste giza-taldeen gainean haien ikuspegia inposatzen dute eta menderatzen dituzten gizarteak desegituratzen dituzte. Césaireren (2006) esanetan, kolonizazioaren ondorioz, kulturak zapaltzen dira, erakundeak suntsitzen dira, lurrak konfiskatzen dira, erlijioak akabatu egiten dira, aukera paregabeak errotik kentzen dira eta identitateak desagerrarazten dira, gizarte horren sustraiak akabatuz. Honen ondorioz, euren identitatea eta nortasuna ez dago ikusgarri, ez da erabiltzen, beraz, ez daude erreferenterik, eta erreferenterik ez badaude norbanako identitatea garatzeko aukerak urriagoak dira.

Kolonizatzaileek, Solano-Alpízen (2015) arabera, ez dituzte soilik ezaguera autoktonoko aztarnak hondatzen; hezkuntza- eta kultura- erakundeek ere, heziketa alienagarria inposatzen dute, non gizakiak memorizazio pasiboa eta errepikapen hutsa aurrera eramane behar duen, haien balore, munduko ikuspegiak, ohiturak eta ezaugarriak konkistatutako gizartean ezarriz. Historian zehar ikus dezakegun moduan, kultura hegemonikoak gutxiengo pribilegiatuaren kontrola hedatzen du menpeko gehiengoaren gainean. Kontrola gizartearen alderdi guztien gainean ematen da: ekonomian, politikan, kulturen edo hezkuntzan, esate baterako. Gaur egun, ekintza honi globalizazioa deritzogu eta honen eredu garbia Amerikako Estatu Batuak gauzatu duen prozesua da.

Globalizazioak mugarik gabe, zein kontrolik gabe, inperialismo kulturalari eta domeinu ekonomikoari mesede egiten dio, betiere, mendebaldeko kultura goretsiz, herri bakoitzaren identitate partikularraren kontra erasotuz. Solano-Alpízen (2015) lau

ezaugarri garrantzitsu aipatzen ditu prozesu honen sorrera eta erroak azaltzeko: antropozentrismoa, epistemozentrismoa, logozentrismoa eta falozentrismoa. Prozesu hauen lehenengo pausuak XV. mendean ematen hasi ziren eta XX. mendeko bigarren erdialderarte iraun du. Gaur egun kolonizazioa eta honek dakartzan ondorio guztiak ikusi ez arren, existitu den prozesua da eta gaur egun oraindik ere kolonialismoaren aztarnak ikus dezakegu; hala nola, Afrikan, Asian eta zapalduta izan diren beste lurralde hainbatetan gauzak aldatu edo aldatzen ari dira, baina orain dela denbora gutxi arte, herrialde kolonizatzaileen historia ikasten zuten, Kenian Britania Handiko historia ikasi izan dute, esate baterako. Beraz, kolonizazioan, gizon zuria eta katolikoa izatea abantaila handia zen, izan ere, gizonaren irudi hori (europarra) hartu zen prototipo moduan. Horren ondorioz, jarrera arrazistak eman ziren, kultura guztiak mesprextatuz europarra goresteko. Arrazismoa estruktura oso bat da non kaltetuak ez dira bakarrik arrazakeriaren biktimak, baizik eta ikuspegi arrazistak dituztenek ere. Pine eta Hilliard-ek (1990) arrazakeria honela definitzen dute:

Ezaugarri hauek dituen buru-gaixotasun bat da: pertzepzio distortsionatua, errealitatea ukatzea, handitasun-ameskeriak (zurien nagusitasuna sinestea), errua besteei (biktimari) botatzea eta desberdintasunen aurreko erreakzio fobikoak. (595 or.)

Jarrera horri antropozentrismoa deritzogu. Prozesu horren arabera, gizakia erdian jarri behar da; zehazki, jadanik aipatu dugun moduan, gizon zuria eta katolikoa. Munduaren ikuspegia haien esperientzietatik baino ez da hartzen, beraz, horietatik aldentzen den edozein egoera edota pertsona ezin dira onartu, txarrak dira. Kolonizazioa ematen denean, pertsona autoktonoak ez-gizaki edo sasi-gizaki bezala hartzen dira, eta azkenean beraiek ere horrela ikusten dute haien burua. Horretaz aparte, lege eta jokaera guztiak fede katolikoan oinarrituak izan dira, ondorioz, kolonizatuen inguruko eztabaidak beti euren arimen existentziaren inguruan aritzen ziren. Gaur egun, pentsamolde horiek bereganatuak izan dira: hala nola, Keniako herri txikietan, pertsona txuri bat ikusten dutenean, arima bat ikusten ari direla uste dute, ezberdina delako.

Antropozentrismoa mundua ikusteko modua bihurtu zen heinean, kristau erlijioa, batez ere, erlijio katolikoa gizon txuriaren subirotasuna azpimarratzeko sartu zen. Hori dela eta, historian zehar, emakumeei ez zaie garrantzirik ematen, ez dira aipatzen, nahiz eta mendebaldeko emakumeak izan, bakarrik gizonezkoak agertzen dira. Solano-Alpízkak (2015) aipatu duen beste kontzeptu batek gai hau barne hartzen du: falozentrismoa. Historikoki gizarte heteropatriarkalak emakumeak eta gizonak rolen arabera bereiztu izan ditu, gizonezkoei boteredun rolak emanez eta, aldiz,



emakumezkoen menpekotasun rola. Honen arabera, gizartea estratifikatua dago eta etnia eta sexuaren arabera desberdinak daude. Heteropatriarkatua estruktura bat da: bere menpean, hezkuntza, erlijioak eta erakunde politiko eta administratiboak hartzen ditu barne. Instituzio guzti hauetan sortzen diren legediak, ikuspuntuak eta politikak emakumearen ahulezia eta, oro har, ezgaitasuna azpimarratzen dute. Aurrerago gehiago sakonduko da gai honetan, baina kontuan izan behar dugu hezkuntza dela hau erroetatik kentzeko baliabide hoberena. Bada, historikoki hezkuntza- erakunde bidez eman edo erakutsi dira portaera-ereduak, pertsonak izateko eta munduan bakoitzak bete behar dituen rola zehaztuz, gizartea higiezina bihurtu da. Rol horiek hainbeste baneratu dira, non izugarri kostatzen da pentsamolde horietatik irtezea, horregatik, hezkuntzaren esku dago ikasleei erakustea kritikotasunez jadanik duten ezagutzak aztertzen eta berregiten. Beraz, falozentrismoa errotik akabatzeke, eskoletan hezkidetzak bultzatu behar dugu, beti ere, ikuspegi antiarrazistarekin.

Honen harira, arestian aipatuta dagoen epistemozentrismo kontzeptua daukagu. Hau hobeto ulertzeko, Solano-Alpíak horrela definitzen du: “epistemozentrismoa prozesu bat da non euro-mendebaldeko kultura eta ezaguerak bakarrak eta egiazkoak bezala bihurtzen dira” (2015, or.120). Definizio hau aintzat hartuz, prozesu hau aurreko bi kontzeptuekin zuzen lotuta dagoela esan genezake. Prozesu hauen bidez, kultura dominanteak bere ideologia eta ohiturak inposatzen ditu, menpeko kulturen ohiturak eta ideologiak mespretxatuz, baliagarriak ez balira moduan ezabatuz. Honen bidez, jatorriko kultura eta, honen ondorioz, identitateak suntsitzen dira; kultura dominanteak menpeko kulturak desagerrarazten ditu. Prozesu hau emateko, hezkuntza da erabiltzen den baliabideetako bat. Hau da, ikastetxeetan mendebaldeko herrialdeetan oinarritutako eduki eta kontzeptuak ematen dira, eta hauek unibertsalak izango balira moduan hartzen dira. Jatorrizko herrialdeen historia, gizartea, etab. desagertzen da eta kultura hegemonikoaren ingurukoa ikasten da, jadanik esan dugun moduan, historia unibertsala izango balitz moduan. Inplizituki ikus daiteke honen helburua jatorrizko kulturak baliozko ezagutzak eduki ezin dituela sumatzea dela. Aurrerago, kolonizazioa eta hezkuntzaren arteko loturan zehatzago sakonduko dugu, baita Kaikorren (aztergaia den herrixka) emandako aldaketak kolonialismoa dela eta.

Globalizazioaren dimentsioekin jarraituz eta bukatzeko, logozentrismo kontzeptua daukagu, arrazoinamenduaren garrantzia azpimarratzen duena. Honen harira, Solano-Alpíak (2015) Europako gizartearen hitza unibertsala dela dio -eta ondoren kultura amerikarra eta japoniarra-, beste herrialdeen erakunde, balore eta jakintza sistemei garrantzia kenduz. Eduki hauek hedatzeko, berriz ere, hezkuntza da baliabide hoberena. Bertan, aurretik adostutako ezaguerak zabaltzen dituzte beraien erakundeak eta

zuzentzen dituzten erakundeen bitartez: eskolak, akademia sistemak, erakunde erlijiosoak eta familiak, esate baterako. Inperialistek logozentrismoaren bidez menpekotasun hegemonikoa mantentzen dute, “besteen” inguruko diskurtsoak eraikiz, haien burua goretsiz, besteen ezaguerak produzitzeko moduak txarragoak edo ikusezin bezala ezarriz (Restrepo eta Rojas, 2010).

Aipatutako lau dimentsio horiek eta kolonialismoaren rol garrantzitsua, bai gizartean zein hezkuntzan, aurrerago erakutsiko digute nola baldintzatu duten munduan zehar hezkuntza sistemak modu zehatzago batean. Kolonialismoak jakintza anitzen zabalkuntza prozesuak mugatu ditu; herrialde kolonizatuen kasuan, gizarteen nortasun propioa ezabatzeaz gain, euren ezaguerak desagerrarazi dituzte kasu askotan. Herrialde kolonizatu askok, hala ere, aurre egin diote kolonialismo eta globalizazioaren prozesuei eta euren jakituria babesteko eta berreskuratzeko bidean daude. Herrialde hauen artean Kenia daukagu, lan honen aztergaia dena. Keniaren testuingurua ezagutzea garrantzitsua da gure proposamena kokatu eta justifikatzeko. Herrialde honen kolonizazio prozesua eta XX. mendean bizi izan duen independentziak ulertzea beharrezkoa zaigu; are gehiago, herrialdearen aniztasun kulturala eta linguistikoaren inguruko testuingurua eskainiko da.

### **3.2. Afrikako kolonizazioa**

Urbanok (1985) idatzi zuena oinarritzat hartuz, Europako potentzia handiak (Erresuma Batua, Frantzia, Portugal, Belgika, Italia eta Espainia) Afrikako lurraldeak konkistatzen hasi ziren. Herrialde hauek hainbat arrazoi zituzten Afrikako kolonizazioari hasiera emateko: arrazoi ekonomikoak (industrializazioaren, gasaren eta eskulanaren eskaera ordaintzeko, besteak beste), arrazoi politikoak (potentzia izatearen estatusa mantentzeko eta nazioarteko ospea edukitzeko) eta arrazoi ideologikoak (arrazo zuriaren nagusitasunaren ideia dela eta). Hasieran, herrialde bakoitzaren ordezkariak ibai desberdinetatik igarotzen zihoazen eta bidetik aurkitzen zituzten lurraldeak bereganatzen hasi ziren. Horrek gatazka asko sortu zituen herrialde horien artean, bada, askotan elkar topatzen ziren eta lurralde berdinak bereganatu nahi zituzten. Honen ondorioz, European nabari zen ezinbestekoa zela Afrika konkistatzeko lasterketa arautzea. Beraz, Berlingo Konferentzia egin zen (1884-1885) sortu litezkeen arazoei aurretik konponbidea emateko. Julia Morenok (1985) azaltzen du nola konferentzia horretan batez ere, Frantziak, Erresuma Batuak eta Alemaniak hainbat baldintza ezarri zituzten kolonia berri horiek bereganatzeko; hala nola, lehenengo heltzen zena lehentasuna zuen eta tokiko herritarrekin akordio bat egin behar zuten herrialde hori

guztiz bereganatzeko besteak beste. Horretaz aparte, agintariak, geografoen laguntzarekin, Afrikako kontinentea banatu zuten. Horren ondorioz, gaur egun munduko mapa ikusterakoan, Afrika da kontinente bakarra zeinen herrialdeak ia-ia lerro zuzen batzuekin mugatuta dauden. Ekintza hori egiterako orduan, geografoek ez zuten kontuan izan momentu horretan jadanik lurraldeetan zeuden indigenak, beraz, tribu asko banatu zituzten. Hori gaur egun oraindik eraginak ditu, bada, ekintza horren ondorioz, herrialdeak biztanleria heterogeneoaz osatuta daude (tribu desberdinak bildu eta banatu zituztelako), beraz, gatazka asko sortzen dira beraien artean. Nahiz eta hasieran Berlingo konferentzian adostutakoa kontuan izan, herrialdeen artean liskar asko sortu ziren, eta horiek izan ziren Lehenengo Mundu Gerra ematearen arrazoiatariko batzuk 1914an.

Bigarren Mundu Gerran, potentzia horiek boterea galtzen hasi zuten, beraz haien herrialdeak sendotu behar zituzten ondorioz, koloniak independentzia lortzen hasi ziren, nahiz eta kolonia izatearen ondorioz asko geratu –herrialdeen mugak, kolonoen hizkuntza, hezkuntza sistema, besteak beste-. Menpekotasun hori kendu izan arren, potentziek influentzia edukitzen jarraitzen dute. Horregatik, nahiz eta Afrikako herrialde asko, berez, oso aberasgarriak izan, txiroak dira. Bada, aberastasun materiala daukate, baina potentzia handiei ematen jarraitzen dute, horregatik, herrialde horietan txirotasun-tasa oso handia da. Gainera, telebista pizterakoan edo albiste bat irakurtzerakoan, diru-laguntzen edo giza-laguntzen informazioa baino ez dugu jasotzen, hau da, informazio eta datu asko dauzkagu Afrikako herrialdeetan ematen diren kooperazioen inguruan, diru-laguntzen kopurua, etab. aldiz, informazio eskasa daukagu bertan ematen den espoliazioaren inguruan. Gaur egun Afrikako herrialdeetan ematen den erauzketa, joera historiko baten jarraipena baino ez da.

Beckford (2016), teologo britaniarrak, gutxi gorabehera 7,5 bilioi libretan kokatu zuen Erresuma batuak esklabo trafikoaren bidez Afrikako herrialdeei kendutako aberastasuna. Arazo nagusietako bat, mendebaldeko herrialdeek sartzen dutena baino askoz gehiago atzeratzen dutela da. Bitartean, pobrezia eta desberdintasuna sustatzen duten eredu ekonomikoak bultzatzen dituzte, askotan Afrikako eliteekin bat eginez. Hala ere, beharrezkoa da aipatzea bertan bizi diren aberatsek gero eta diru gehiago nahi dutela eta horregatik aberatsak direnak diru asko dute eta txiroak direnak izugarriko txirotasunean bizi direla –bi muturrak dira, tartekorik gabe-. Afrikako herrialdeetan ematen den espoliazioaren inguruan ez da informazio askorik aurkitzen, baina Curtis-ek eta Jones-ek (2017) honen harira artikulua bat idatzi zuten, bildutako datu asko aurkezten dituen:

Dirua Afrikatik ateratzen da neurri batean, Afrikak baliabide naturaletan duen aberastasuna atzerriko enpresa pribatuek ustiatzen dutelako. Afrikako gobernuak atzerriko inbertsioen gutxiengo batean baino ez dituzte partaidetzak, eta badituztenean, txikiak izaten dira, oro har, %5-20 ingurukoak. Duela gutxi, *War on Wantek* egindako txosten baten arabera, *London Stock Exchange* (Londreseko burtsa) kotizatzen duten 101 enpresek 1,05 bilioi dolarreko baliabideak kontrolatzen dituzte Afrikan, oinarrizko bost produktutan: petrolio, urrea, diamanteak, ikatza eta platinoa. 101 enpresa horiek meatze-operazioak egiten dituzte Afrikako 37 herrialdetan, horietako 59 Erresuma Batuan eratuak.

### **3.2.1. Kenia: Kolonia izatearen eragina**

Afrikako kolonizazioaren testuingurua kontuan izanda, Keniako kolonizazioan zehazki enfasia jarriko dugu. Kenia Britania Handien kolonia izan zen. Hau da, Erresuma Batuk Kenia kolonizatu zuen XIX. mendean, bertako kultura indigena zapalduz. Lurraldeari dagokionez, kolonia izatearen aurretik ez daude datu askorik zehazki jakiteko zeintzuk ziren Kenia herrialdearen mugak, baina badakigu nola aldatu zen kolonia izatera pasatu zuenean. Kolonizazioa ez zen Kenia osoan eman, baizik eta leku zehatzetan. O’Hernek eta Nozakik (2014) aipatzen dute nola kultura hegemonikoen herritarrek hiriburuetan finkatu ziren. Honen ondorioz, kultura indigenen ikastetxeak hiriburuetatik kanpo egotera behartuta zeuden, eta hiriburuetan aldiz, Keniako herritarrei bideratutako ikastetxeak zeuden, non kolonizatzaileentzat lan egiteko behar ziren ikasketak baino ez ziren irakasten. Konkistatzaileek tribuetara joan eta haurrak hartzen zituzten, txikitatik haien kultura erroitik ezabatzeke, mendebaldekoa bereganatzeko nahian. Honen ondorioz, tribuen kultura gero eta gehiago desagertzen joan zen, herrialde konkistatzaileen kultura inposatzen hasi zen heinean. Herrialde horietako kultura talde gehienak ez ziren agintari berrien kontra altxatu; hasieran, agian, haien kulturetan sartzen ez zirelako, baina gutxika-gutxika, konturatu gabe, ohiturak eta hizkuntza aldatzen joan ziren “denbora berrien” kanpotik ez geratzeko eta beste taldeekin batera “garatzeko”. Honekin batera, kolonizatzaileek herrialde berrira heldu bezain laster, toki zehatzak aukeratzen zituzten hainbat irizpide kontuan izanda: abeltzaintzarako lur emankorrak edo mineralak zeuden lurak bereganatzen zituzten (O’Hernek eta Nozakik, 2014).

Gertakari hauek talka sozialak eragiten zituzten. Bada, erakundeak aldatzen hasi ziren, legeak guztiz aldatu ziren, hizkuntza berri behartsu bat sartu zen, etab. Presio

honen aurrean eta arazo ekonomikoak direla eta, Keniako herritarren alienazioa ematen hasi zen. Gertakari honen abiapuntua erlijio katolikoa helduekin batera ematea ez zen ausazkoa izan.

Erakundeak aldatzerako orduan, kolonizatzaileek haien ohiturak eta izateko moduak dira irakatsi nahi dutena; hau da, indigenek haien antza izan behar dute, gauza guztien artean, mendebaldeko gizona da erdian dagoena eta jarraitu behar dutena – antropozentrismoa-, baina argi izanda ez direla inoiz haien bezalakoak izango; kolonoek euren sistema kulturalak, politikoak, legegileak eta ekonomikoak inposatuko dituzte eta, horien barnean, kolonizatutako komunitateak ez dute berdintasunik izango. Hor ikusten da epistemozentrismoaren eta matrize kolonialaren oinarria. Nahiz eta ohitura desberdinak eta hizkuntza desberdina eduki, ikastetxeetan hizkuntza berria erabiliz irakatsi behar dira mendebaldeko edukiak eta gizon txuri kristauen jarrerak ere irakatsi eta barneratu behar dira. Jadanik aipatuta dagoen moduan, hezkuntza biderik hoberena da estatu bat alienatu nahi duzunean, eta horretarako historia baino ez dugu behatu behar, Afrikan, Latinoamerikan edo Asian eman den moduan, esate baterako.

Gaur egun, nahiz eta Kenia 1963an errepublika izatera pasatu, oraindik koloniaren aztarnak ikus ditzakegu; hala nola, hizkuntza ofizialak *kiswahili*-a (suajili) eta ingelesa (Erresuma Batuko/koloniaren hizkuntza) izanez. O'Hernek eta Nozakik (2014) Keniako hezkuntzaren inguruan egin duten ikerketan ikus daiteke gobernua ahalegintzen ari dela kolonialismoak utzi dituen aztarnak kentzen -teorikoki-, baina oraindik ikus daitezke haien testuliburuak mendebaldeko ezagutzaz beteta daudela, baita ere, mendebaldeko erreferenteak erabiltzen dituztela. Kolonialismoa guztiz ezabatzeke, ezinbestekoa da gure itxura duten erreferenteak edukitzea bakarrik ez gaudela ikusteko eta edonor edonora heldzea lortu ahal duela jakiteko. Molly Cunningham (2006) Keniako hainbat ikastetxeetan egon zen eta kolonialismoa gertakari positiboa izango balitz moduan ikasten dela dio. Idazle honek testuliburuetan, kolonizazioaren erreferentzia positiboa eginez, honako esaldiak agertzen direla aipatzen du: “esklaboen salerosketa desagerrarazteko eta gizaki guztiak (afrikarrak) plenoak izateko bideratuta dagoen -eginkizun zibilizatzailea- zabaldu behar da” (Cunningham, 2006, 38 or.). Kolonizazio garaia atzean egotea eta gaur egun oraindik testuliburuetan horrelako esaldiak irakurtzeak, ikas-materialen aldaketa eskatzen du. Ezinbestekoa da testuliburuaren protagonistak keniatarrak edo gutxienez, Afrikarrak izatea. Arestiko adibide gisa, 2. eranskiko lehenengo argazkia behatzen badugu, Nairobiko supermerkatu baten aurkitu daitezkeen liburu guztiak ingelesez idatzita daudela ikus dezakegu. Horretaz aparte, liburu horietan agertzen diren ilustrazioak pertsona zuriez beterik daude.

Gure aztergaia den herrixkari hurbilpena egiteko, Keniaren egitura ezagutuko dugu. Kenia 47 barrutiz osatuta dago, eta barruti horietan tribu bat edo gehiago bizi dira, hizkuntza desberdin asko ukipen egoeran egonez. Ondorioz, nahiz eta bi hizkuntza ofizial egon, askok ez dituzte hizkuntza horiek ezagutzen, bada, hirietatik urrun bizi dira edota ez dira ikastetxeetara joan eta ez dituzte hizkuntza horiek ikasi. Beraz, hizkuntza aldetik Kenia oso aberatsa den herrialdea dela esan daiteke, ez da beharrezkoa beste hizkuntza bat gehitzea (kolonoak egin zuten moduan). Hala ere, gaur egun, ingelesa ikastetxeetan irakasteko erabiltzeaz gain, beste erakundeetan erabiltzen da, hala nola, bankuetan. Aipatzekoa da, hirietan ez dagoela ondo ikusita ingelesa ez den beste hizkuntza batean hitz egitea. Suajilia jakitekotan, onartu zaitzakete, baina ezin dute onartu tribu baten hizkuntzaren erabilera.

### **3.3 Pedagogia kolonialista eta arrazistaren ezaugarriak**

Curriculum eurozentriko bat berez asimilazionista da, nahiz eta beti ez izan halako asmorik. Mendebaldeko kulturaren balioak unibertsaltzat hartzen dira, edo horrela izan behar luketelakoan sustatzen dira. Honen ondorioz, bertakoak ez diren umeentzat zaila gerta liteke haurretatik ezagutu duten balio-sistemaren kontra doan curriculum basterik gabe onartzea. Pinek eta Hilliard-ek (1990) aipatzen duten moduan, ohiko curriculum eurozentrikoa da herrialde anglofono gehienetan; europar jatorriko jendearen ikuspegi, esperientzia, lorpen, ekarpen, tradizio, asmakuntza, aurkikuntza, sorkuntza, eta sinesteei dagokie batez ere, eta desitxuratu egiten ditu beste talde batzuenak, edo existituko ez balira moduan egiten du. Beraz, curriculum hori ikasleek lortu beharreko ezagutzak hautatzerakoan mugatua da, eta aldi berean, munduaren ikuspegi mugatua edo lerratua ematen die ikasleei. Elizabeth Coelhok honen inguruko hainbat adibide ematen dizkigu (2016, 193-194 or.):

- Kolonia ingelesa izan diren herrialdeetan, ikasle gehienek europar jatorriko autoreek egindako literatura ikasten/irakurtzen dute, baina oso gutxi irakurtzen dute, edo batere ez, beste kulturetako literatura, jatorrizko herrialdearen kulturako literatura barne.
- Gizarte zientzien barruan, mendebaldeko gaitasunak baino ez dira aztertzen, oso arraroa suerta daiteke hegoaldeko zientzialari baten inguruan hausnartzea.
- Testuliburuetan arreta jartzerakoan, irudi gehienak pertsona txurienak direla ikus dezakegu, eta beste kulturako pertsona bat agertu izatekotan, modu estereotipatuan agertzen da.

Hezkuntza berean sartzeaz aparte, herrialde kolonizatueta hezkuntza politika barnean sartu izan da eta honen bidez gizartea kontrolatu izan dute, Belin Vázquezek (2013, 178 or. ) honen inguruko hainbat adibide aipatzen ditu:

- “Herri hizkerak” erauzi, arraza, kultura, erlijioa, linguistika eta zientzia nagusitasunaren kontrolpean oinarritutako irakaskuntza-arauen bidez, herritarren subjektibotasun berria eraikitzea.
- Jakintza arrazionalak eta “besteen” jakintza irrazionalen arteko banatze eta hierarkizazio irizpideen bidez, ezagutzak homogeneousatu. Gizon zuriaren jakituria, bakarra eta egiazkoa bezala ezarri.
- Mendebaldeko logozentrismoaren nagusitasun hegemonikoak “besteen” kontzeptua eraikitzen du.
- Mendebaldeko ezagutzak unibertsaltzat hartzerakoan, “nagusitasun epistemikoa” ematen da. Nagusitasun honek, ezaguerak produzitzeko beste formak gutxiesten ditu.

Elizabeth Coelhok hezkuntza-curriculum tradizionala hezkuntza-curriculum inklusibo batekin zehazki alderatzen du. Honako ezaugarri hauek bereizi ditzakegu curriculum ez-inklusiboaren barne, arte, hizkuntza, literatura, matematika, zientzia-teknologia eta gizarte zientzien esparruetan (2016, 207-230 or. ):

- Arte esparruaren barne:
  - “Kulturaz aberasteko aukerak ez dira beti aintzat hartzen, eta programaren zenbait alderdik talka egin dezakete ikasleen kultura-balioekin” (2016, 207 or. ).
  - Programaren barruan ikasleen sinesmen-erlijiosoak eta kultura-arauak kolokan jarri dezaketen jarduerak agertu daitezke.
  - Jadanik aipatu dugun moduan, programazioaren barnean agertzen diren artistak mendebaldekoak izan ohi dira, eta arraroa izango litzateke beste kulturetako artistak aurkitzea. Honekin batera, idazleak emakumeen irudi eskasia nabarmentzen du curriculumaren barruan (ezaugarri hauek, esparru guztietan errepikatzen dira).
- Hizkuntza esparruaren barne:
  - Hezkuntzarako hizkuntza onargarri bakartzat ingelesa hartzen denean, gutxietsi egiten dira beste hizkuntzetako hiztunak, eta ingelesdun elebakarrak hartzen dira “normaltzat”.
  - Hezkuntzan ingelesa ikasteko hizkuntza moduan ezartzen denean, ingeles zuzena edo ona erabiltzea eskatzen da, baina toki askotan, honen

aldaerak mintzatzen dituzte, haien ama-hizkuntzaren eraginpean. Honekin ikasleek maiz jasotzen duten mezua, haien hizkuntza, nolabait, estandarraren azpikoa dela da, eta, ingeles-hiztun baldartzat hartzen ohi dira.

- Literatura esparruaren barne:
  - Aintzat hartzen ohi den literatura, Greziako eta Erromako mitologiak eta Britainia Handiko eta Ipar Amerikako klasikoek osatzen dute, eta kultura menderatzaileko jendearen esperientziak eta balioak islatzen dituzte. Honek, ikusmolde eurozentrikoan oinarrituta dago, eta honen ondorioz, ikasleek ikuspegi mugatua jasotzen dute literatura eta, azken finean, munduaren inguruan.
  - Gizakiok ez gara estereotipoekin jaiotzen, baizik eta, gizartetik bereganatzen ditugu. Haurrak garenean jasotzen dugun literatura oso garrantzitsua da, bada, liburuek kultura-estereotipoak indartu ditzakete.
  - Literaturan agertzen diren pertsonaiak zuriak izaten ohi dira, halaber, pertsona beltzak agertzekotan, ez dituzte rol garrantzitsuak edukitzen, baizik eta, gaiztoarena eginez edo bazterreko rolak jokatuz agertzen dira.
- Matematika esparruaren barne:
  - “Kontu, manipulatu, neurtu edo kalkulatu beharrekoak eta problemetan ageri den jendearen eta lekuen izenak, askotan, ildo nagusiko kultura-esperientziei dagozkie” (2016, 221 or.).
- Zientzia eta teknologia esparruaren barne:
  - Zientzia eta teknologia objektiboak direla esan genezake, baina hauek arrazakeria justifikatzeko erabili izan dira; hala nola, Alemania nazian “metodo zientifikoa zehatz-mehatz erabili zen genozidiorako teknologia eraginkorra garatzeko eta dokumentatzeko” (2016, 224 or.).
  - Historian zehar, emakumeak gutxietsiak izan dira, honen ondorioz, gizonezkoen izenaz sinatu behar izan dituzte haien asmakizunak.
  - Curriculumaren edukiak mendebaldeko kulturaren oinarri.
  - “Curriculumeko material asko, agerian ez bada ere, arrazistak dira, beste asko oraindik isilean sexistak diren bezalaxe” (2016, 225 or.).
- Gizarte zientzien esparruaren barruan:
  - “Europa ez beste kontinenteen historia europarrak iritsi zirenean hasiko balitz bezala aurkezten da maiz” (2016, 228 or.). Bertan idazleak Afrika honen adibide gisa aurkezten du, bada, kontinente honen historiaren hasiera, kolonizazioarekin eta esklabutzarekin hasten da.



- Hegoaldeko herrialdeak modu estereotipatuan ikasten dira.

### 3.3.1 Proposamen antiarrazista eta antikolonialista bat eraikitzeke ezaugarriak

Aurreko ezaugarri guzti horiek kontuan hartzen badira testuliburu bat hautatzerako orduan, ikuspegi eurozentrikoa indartzen dugu, hezkuntza inklusiboago bati oztupoak jarritz. Hauek kontuan edukita, Elizabeth Coelhok (2016) aurkeztu digun curriculumari buelta emango dio, curriculum antiarrazista eta antikolonialista bat sortuz:

- Arte esparruaren barruan:
  - Kultura-aniztasuna eta arraza-pluraltasuna islatzen dituzten lanak eta jarduerak bilatzen dira.
  - Mendebaldeko protagonistaz aparte, beste kulturetako pertsona eta lan berriak jorratu. Orobat ikasten dute nola kultura-tradizioek maileguak hartzen dituzte batak bestetik (2016, 208 or.).
  - Margoen garrantzia aurkeztu. Horretarako, benetako larruazal-kolore desberdinetarako margoak eskaini.
- Hizkuntza esparruaren barruan:
  - Hizkuntza guztiak hartu baliozkotzat, horretarako proiektu eta jarduera elebidunak bultzatu.
  - Hizkuntza-aldaerak errespetatu egiten dira eta laguntza ematen da ikastetxetik ikasleek lortu behar duten hizkuntza-mailara heltzeko.
  - “Hizkuntzako gai eta jardura asko diziplinartekoak dira berez, eta curriculum-integrazioan laguntzeko erabil daitezke (2016, 216 or.).
- Literatura esparruaren barruan:
  - Ikuspegi plurala eskaintzeko, literatura klasikoaz baliatuz, edota edozein dokumentu erabiliz, irakatsi irakurle kritiko bihurtzen.
  - Eguneroko gaiak literaturaren bidez landu, gai kulturantzunak barne.
- Matematika esparruaren barruan:
  - Aukera paregabea izan daiteke kultura desberdinak problemen bidez ebazteko.
  - Irakatsi bizitzako zein arlotan erabil ditzaketen ikasitakoa.
  - “Irakatsi mundu osoko ekarpen matematikoak” (2016, 222 or.).
- Zientzia eta teknologia esparruaren barruan:
  - “Dibertsifikatu zientzialariaren irudia” (2016, 224 or.).

- Eredu asko eskaini ikasleei, bai ezagunak, zein ezezagunak suerta litekeenak.
  - Ez azaldu metodo zientifikoa bakarrik, baizik eta norbanakoaren irudimenaren garrantzia erakutsi.
  - Talde lana sustatu, elkarren osagarri izan daitezke.
- Gizarte zientzien esparruaren barruan:
- Ikasleei mundua kultura askotaz sortua dagoela erakutsi.
  - “Demokraziaz eta giza eskubideez irakatsi [...] Azaldu besteen eskubideak zanpatzen dituzten kultura-jardunbideak ez direla onargarriak ez moralki, ez legez” (2016, 230 or.).

#### **4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

Hezkuntzak oinarri arrazistak eta kolonialak izan ditzakela ikusi dugu lan honen zehar. Halaber, Rafael Grasak (1988) literatura inklusiboago bat hautatzeko pausuak eman dizkigu. Honekin batera Paulo Freirek (1970) proposatu zuen metodologia ere aztertuko dugu lan honen zehar. Hasi baino lehen, gure aztergaia izango den herrixka ezagutuko dugu: Kaikor (Turkana, Kenia).

##### **4.1 Testuingurua**

Kaikor Keniako iparraldean kokatuta dago, leku lehorrean, tenperatura altuekin. Bertan Turkana tribuko biztanleak bizi dira. Haiek turkanaz edo suajiliz hitz egiten dute, eta ikastetxeetara joan direnek, gizonezkoak gehienak, ingelesa ere badakite. Kaikorretik hurbilen dagoen hiria, Lodwar, kotxez 7 ordu baino gehiagotara dago, beraz, biztanleek handik ez dira gehiegi mugitzen. Halaber, nahiz eta hiria oso urrun egon, Kaikor inguruan finkapen asko daude.

Kenian Turkana tribua ez dago ondo ikusita, izan ere, atzerapen asko dituen tribu bat izango balitz moduan hartzen dute. Herrialde honetan 43 tribu daude. Berez, tribu hauek beraien tradizioak edukitzen jarraitzen dute, baina turismoa dela eta, ia guztiek haien ohiturak aldatu dituzte turistentzat erakargarriagoak izateko. Honen ondorioz, tribu horien ekonomia nahiko igo da eta “aurrera-pauso” asko ematen ari dira denbora txikian. Turkanaan, aldiz, turistak ez dira joaten. Turkana ez da oso erakargarria, izan ere, jadanik aipatu dugun moduan, leku lehor bat da, tenpera altuekin, eta ez daude animalia exotikoak, eskorpioiak izan ezik, Keniako hegoaldeko erreserba naturaletan dauden moduan. Hau dela eta, tribu honetako tradizioak ez dira asko aldatu urteetan zehar.

Halaber, azken urteetan, poliki-poliki generazio berriak aldatzen joan izan dira, teknologiaren hedapena dela eta; mugikorrak.

Turkanako tribua, izatez, nomadak izan dira, zeren, artzaintzan aritu diren ondorioz, animalientzako janariaren bila ibiltzen ziren leku batetik bestera. Gaur egun, oraindik, badaude horrelakoak egin behar dutenek, baina semi-nomadak moduan adierazten dira. Animaliekin ibiltzen direnak, gizonezkoak izan ohi dira, hau baita gizonezkoen betebeharrak. Gizarte-talde guztietan gertatu izan den moduan, tribu hau falozentrista da; hau da, gizartea genero rolen arabera banatuta dago eta hauen arabera jokatzeko dute, beti gizonezkoek boteredun rolak izanik eta emakumezkoek menpekotasun rolak pairatuz. Kultura honetan, gizonezkoek agintzen dute eta beraiek lan egiten dute etxetik kanpo (abeltzaintzan), aldiz, emakumezkoek etxearekin lotuta dauden lanak bete behar dituzte: etxea eraiki, umeak zaindu, janariaren bila joan eta hau prestatu, hainbat kilometro mugitzen dira ura lortzeko eta zuraren bila joaten dira sukaltzeko sua sortzeko eta aipatutako etxeak eraikitzeko material moduan erabiltzen dutelako.

Orain dela hainbat urte, guztiz nomada izatetik semi-nomadak izatera pasatu zutenean, gizartean banaketa bat eman zen; mendiko gizartea eta herrixkako gizartea. Banaketa hau oso garrantzitsua da, bada, mendian ibiltzen direnak orokorrean ez dira ikastetxeetara joaten, mendian baino ez dira ibiltzen. Honen ondorioz, turkana hizkuntzan baino ez dakite hitz egiten, arropa tradizionalak eramaten dituzte, bizirauteko jokoak ere desberdinak dira, etab. Aldiz, herrixkan bizi direnak ikastetxeetara joateko aukera<sup>1</sup> izaten dute. Hezkuntzak haien tradizioetan eragin handia izan du, eta gizonezkoek haien egoera boteretsua aldatzen duenez gero, guraso askok arrazoi hau haien alabak ikastetxeetatik kanpo uzteko aitzakia moduan erabiltzen dute. Tribu honetan tradizioak oso garrantzitsuak dira, eta bizitzeko baldintza txarrak eta animalien erakargarritasun eskasa dela eta, jadanik aipatu dugun moduan (exotikoak diren animali bakarrak, eskorpioiak eta dromedarioak dira), bertara ez dira turistak joaten, beraz, tradizio hauek mantendu ahal izan dira, nahiz eta, kolonizazio garaiko arrastoak oraindik Kaikorren aurkitu ahal izan diren; honen adibide gisa, 2. eranskiko bigarren argazkian ikus dezakegu nola herrixka honen irakasleen eraikina gaur egun oraindik erabiltzen den kolonialismo garaiko eraikina den.

Keniako tribu askotan ematen den moduan, gizarte honetan emakume ona izateko, gutxienez 6-7 seme-alaba eduki behar dira, eta gizonezko bakoitzak, mantendu dezaketen adina emakume izan ditzakete. Beraz, gizon bakoitzak 18 seme-alaba baino

---

<sup>1</sup> Hezkuntza jasotzeak edo ez, familia eta gizarte osoaren esku dago.

gehiago eduki ditzake, nahiz eta horietako batzuk beste gizonezkoenak izan ahal diren. Hainbeste pertsona mantentzea ez da batere erraza, batez ere, haiek duten aberastasuna animaliak direlako eta hauek emazte berriak edukitzeko erabiltzen dituztelako. Baina, zenbat eta seme-alaba gehiago eduki, gero eta eskulan gehiago edukiko dute. Honi esker, bi edo hiru seme artzaintzan arituko dira eta hurrengokoek ikastetxeetara joateko aukera edukiko dute. Honen ondorioz, bertan dauden monjek hainbat haur eskola jarri dituzte. Bertan, hezkuntza emateaz aparte, haurrek egunean 2 janari edukitzeaz ziurtatzen dira.

Kaikor zonaldearen hezkuntza maila aztertzen baldin badugu, oso baxua dela esan dezakegu. Gurasoek hezkuntza balio ez duen zerbait moduan ikusten dute, beraz, umeak txikiak direnean ikastetxeetara joaten dira bertan janaria jasotzen dutelako, jadanik aipatu dugun moduan, baina hasterakoan, hezkuntzatik kanpo geratzen dira. Emakumezkoen kasuan, ikastetxeetara joaten direnak, orokorrean ez dute bigarren hezkuntza bukatzen. Emakume gehienak txikitatik kulturaren barne sartzen dituzte, honen seinale, *shangak* (lepoko multzo handi bat) jartzen dizkiote, beraz, ezin<sup>2</sup> dira ikastetxeetara joan. *Shangak* jartzerakoan, haien gurasoek haur hauek tribuko tradizioetan sartzen dituzte, eta gero eta *shanga* gehiago eduki, gero eta dote gehiago (animaliekin emandakoa) emango diote ezkontzerakoan. Keniako legeen arabera, emakumeek ezin dituzte lepokoak ezta ile luzea eraman ikastetxeetara, bada, hauek zorrak edo beste intsektu erakarri ditzakete eta bertan ez dute hau gainditzeko gaitasunik. Turkanako gizonezkoen esanetan “emakumeak ikastetxeetara joaten badira, otzanak izateari uzten diote, eta haiek, protestatu gabe agintzen dietena egiten duten emakumeak behar dituzte”.

Keniako legeen arabera, emakumezkoak ezin dira ezkondu 18 urte baino gehiago ez badituzte, baina, arestian aipatu dugun moduan, Kaikorretik ibiltzea ez da batere erraza, tenperatura dela eta, “errepideak” direla eta, etab. Gainera, bizirauteko tokirik txarrena da, beraz, polizia ere ez da askorik bertatik ibiltzen. Honen ondorioz, emakumeek txikitatik salduak izaten dira eta haien lehenengo hilekoa edukitzerakoan ezkontzen dituzte edozein gizon batekin. Beraz, hezkuntzaren eskuragarritasunari dagokionez, generoaren arabera izaten da.

Jadanik aipatu dugun moduan, Turkanan ikastetxerik egon ez badira ere, tribu honetako pertsonak modu ona zuten beren ezagutzak belaunaldiz-belaunaldi

---

<sup>2</sup> Keniako legearen arabera, hezkuntza publikoa jasotzeko, ilea guztiz moztuta eduki behar da eta ezin dituzte lepokoak edo hezkuntza-eskubideen aurka doan edozein apaingarri edo kultura-ezaugarri eraman.

transmititzeko; ahozkotasuna. Kultura guztietan gertatu den moduan idazkera sartu baino lehen, ahozkotasuna garrantzia handia izan du. Honen bidez, bizitzari aurre egiteko behar diren ezagutzak transmititzen ziren. Gaur egun, oraindik, Turkanan ahozkotasunak garrantzia handia du, bada, mendian bizi diren pertsonak honen bidez transmititzen dituzte haien ezagutzak eta esperientziak; hala nola, nola aurre egin etsaiei, zer jan bizirauteko, animalari arriskutsuei nola aurre egin, etab. Ezagutza guzti hauek ipuinen eta abestien bidez transmititzen dituzte. Gainera, haiek oso harro daude ezaugarri hauetaz, eta gaitasun hau duten gizonek oso ondo ikusiak egoten dira tribuan. Abeslaritzaren ezaugarria, ezagutzak transmititzeko erabiltzeaz gain, emakumeak konkistatzeko ere erabiltzen dute; gizonak abesti bat asmatzen du eta bere lagunek emakumearen inguruan salto eta abesten laguntzen diote, hau zirraratzeko asmoz.

Nahiz eta herrixkan turkana hizkuntzaz hitz egin eta ezagutzak transmititzeko erabili, ikastetxeetan tribu bakoitzaren hizkuntza alde batera uzten dira. Honen ondorioz, aurrean aipatu dugun ahozkotasunaren aberastasuna galtzen joaten da. Horregatik, jakintza hauek hezkuntzan toki bat eduki behar dutelakoan, honen inguruko proposamena egiten da lan honetan.

#### **4.2 Hezkuntza metodologia**

Kenian erabiltzen den metodologia memorizazio hutsa da. Hau da, eduki guztiak ikasi behar dira gero azterketetan islatzeko, praktikotasun eta gaitasun kritiko guztia alde batera utziz. Horretaz aparte, kolonialismoa oraindik agerian dagoela Keniako curriculumaren hasieran isla daiteke, bada, eskerrak ematen zaizkie Erresuma Batuko pertsona batzuei, baita ere ikus daiteke nola aipatzen den haien onarpena eduki ez izatekotan ezin izango luketela curriculum aurrera eraman. Zentzu honetan,

Institutua British Councilen Peter Hall Jonesekin zorretan dago, esparruaren kontzeptualizazio, diseinu eta garapenerako laguntza teknikoak emateagatik [...] eta aitortzen dut Debbie Howard andrearen eta British Councilen Peter Douglan jaunaren babesa markoa editatu eta kopiatzeagatik, hurrenez hurren (KICD, 2017, 4 or.).

Kenian curriculumaren arabera, haien kultura-ondareaz harro egon behar dira, hizkuntza barne, baina ikastetxeetan ez dira tribuetako hizkuntzak erabiltzen, edo gutxienez, horrela gertatzen da Kaikorren. Ikasleak Kenian haien herrixka hurbil ez badago (kasu gehienetan gertatzen den moduan) ikastetxeetan bizi dira. Honen ondorioz, ikasle hauek ezin dute haien ama-hizkuntza erabili, beraz, gutxika-gutxika hizkuntza galtzen joaten da.

Eraberritutako ikasketa-planak ziurtatu nahi du Keniako herritarren hurrengo eta etorkizuneko belaunaldiak aberkoiak zein globalak izango direla, mundu modernoan aurrera egiteko trebetasunez, ezagutzaz, jarreraz eta balioez hornituak, haien kultura-ondare harro eta aberatsean konfiantza izanez eta ondare horrekin mundua guztiontzat hobea izan dadin lagunduz (KICD, 2017, 10 or.).

Keniako curriculumean argi hitz egiten da hizkuntza indigenen inguruan, baina bertan agertzen dena ez da errealitatean ematen dena. Kaikorreko ikastetxe publikoko irakasleen usteetan, ingelesa eta suajilia dira ikastetxean erabili behar diren hizkuntzak. Kasu honetan turkana hizkuntza oso gutxitan erabiltzen da, batez ere, bertan dauden irakasleek hizkuntza hau ez dakitelako. Bertan dagoen beste arazo bat orain aipatu duguna da; ikastetxe publikoetan bertako konderrikoak ez diren irakasleak daude, beraz, hauen ohiturak eta hizkuntza ez dira curriculumean agertzen. Hala ere hau da Keniako curriculumean agertzen dena:

Kenia etnia anitzeko komunitate bat da, non pertsonak hainbat hizkuntza eta dialekto hitz egiten dituzten. Hizkuntza eta dialekto horiek belaunaldien bitartez transmititu beharreko balio eta arau kultural baliotsuak komunikatzen dituzte. Ikastetxeetan hainbat jarduera egingo dira hizkuntza indigena sustatzeko; hala nola, entzumenak, idazmenak, etab. Horrek hizkuntzaz jabetzea eta hiztegiaren garrantzia hobetuko ditu, baita hizkuntza indigenetan hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko oinarrizko trebetasunak eta ezagutzak eskuratzea ere bermatuko du. Gainera, ikasleei ikaskuntza-prozesuan aktiboki parte hartzeko aukera emango zaie, konstruktibismo sozialak nabarmentzen duen bezala (KICD, 2017, 32 or.).

Erabiltzen diren testuliburuak aztertuz, ikus dezakegu bertan agertzen diren arazoak ez daudela Turkana konderrian oinarrituak, ezta Kenian ere. Hau, kolonialismoaren ondorio bat baino ez da, bada, gizarte bakoitzean pertsona kopuru txiki batek herriaren masa handiaren gainean izan duen eta herrialde “inperialistek” ezartzen dutena da funtsezko arazoa. Hala ere, mendekotasun hori gizartean hain luzaroan mantendu badaiteke, ez da bakarrik mendekotasun fisiko bat pairatu delako, baizik eta jasaten duen herriaren begietara legitimoa den gauza-egoera bat delako. Paulo Freirek (1970) zioen egin beharreko gauza bakarra herria isiltasunera mugatzea zela. Hau da, nagusitasuna onartu baino gehiago, mututasunez, pasibotasunez eta “indartsuenen” erabakien aurrean dimisioa emanez onartu zuten. Adibide argi bat jar daiteke: zuk elefante txiki bat makila bati lotzen badiozu, eta makila hori apurtzen eta ihes egiten

saiatzen bada, baina ez badu lortzen, elefantea handiagoa denean, hura apurtzeko indar nahikoa izan arren, ez da saiatuko, txikitatik ikusi baitu ezin duela ezer egin. Hau da gizarte hauetako pertsonen ikusten dutena. Haiei haurtzarotik, ikastetxeen bidez eta bertan erabiltzen den literaturaren eta material didaktikoaren bidez, irakasten diete pertsona txuriek haiek baino hobeagoak eta indartsuagoak direla eta hori gainditzeko aukerarik ez dutela; hori dela eta, Pigmalion-efektua<sup>3</sup> ematen da.

Paulo Freirek zioen hezkuntzak pertsona zapalduaren askapen mailakatua baina erabatekoa izan behar duela (Silva, 2015). Egiturak eraldatzea ezinezkoa da kontzientziak benetan askatu gabe. Horregatik, autore honentzat, “egitekorik garrantzitsuenak bere kontzientziak askatzea eta bere nortasuna aurkitzea dira, bere alienazioen gainetik; gaur egun «kontzientziazioa» deritzoguna” (or.90).

Chimamanda Ngozi Adichie Nigeriako idazlea da, eta 2018an historia bakarraren arriskuaren inguruko TED hitzaldi bat eman zuen, gero liburu batean bildu dena. Ikus dezakegun moduan, bera Afrikako beste herrialde batekoa da, baina arestian hitz egin dugunaren inguruan hitz egiten du liburu honetan, batez ere, ikastetxean izandako esperientzietan oinarrituta. Liburu honetan bere hezkuntzan zehar aurkitu duen Afrikako literatura ezaz hitz egiten du. Txikitatik, bizi zuenarekin zerikusirik ez zuten mendebaldeko pertsonen buruzko istorioak eta arazoak baino ez ditu irakurri. Bere kulturari buruzko erreferenterik ez zuenez, denbora luzez engainatuta bizi izan zela kontatzen du, hain denbora luzean irakurtzen aritu zen istorioetara iristeko asmoz; alienazio prozesu bat ematen da literaturaren bidez. Horretaz aparte, literatura hori irakurtzerakoan, haietan Afrikako pertsonen buruz agertzen ziren estereotipoak bera zenarekin zerikusirik ez zutela konturatzen zen. Zentzu honetan,

Bakarrik atzerriko pertsonen egindako liburuak irakurri nituenez, protagonistak atzerritarrak izan behar zirela eta nire burua identifikatu ezin nuen gauzei buruz hitz egin behar nuela uste nuen (Adichie, 2018, 9 or.)

Ondorioz, Adichiek istorioak desjabetzeko eta kalumniatzeko erabili izan direla, baina baita ere indarra eta pertsonak humanizatzeko erabili ahal direla dio. Istorioek herri baten duintasuna hautsi dezakete, baina hau berreskura dezakete ere. Horregatik, idazle honek ama-hizkuntzan eta hurbileko istorioen inguruan idaztera bultzatzen du, Afrikako herrialdeko haurrek liburuetan haien moduko pertsonak ikusteko, haiekin identifikatuta sentitu ahal izateko. Bada, idazle honen arabera, kontakizun bakarrari uko

---

<sup>3</sup> Pigmalion-efektua: konturatu gabe, aurretik genituen espektatibak betetzeko gure portaera aldatzen duen mekanismo bat da.

egiten diogunean, inoiz ez dagoela istorio bakar bat inon konturatzen gara, eta momentu horretan paradisu moduko bat berreskuratzen dugu (11 or.).

Keniako curriculumean literaturaren garrantziaz ere hitz egiten da. Bertan alfabetatzea oinarrizko giza eskubidea eta hau ikaslearen lehen hizkuntzan ematea ezinbestekoa dela aipatzen da, [...] bada, alfabetatzearen helburua ikaslea irakurketan eta idazketan oinarrizko trebetasunez hornitzea da, gainerako ikasgaietan laguntzeko, horrela ikasleari besteekin komunikatzen laguntzeko, baita ikasteko ikaskuntza sustatzeko ere (KICD, 2017, 32 or.).

Arestian aipatutakoa kontuan izanda, ezinbestekoa da berriz ikastetxeetan ikusten diren testu-liburuetan arreta jartzea, hauen bidez irakaste ereduak eraldatu ahal izateko. Aipatzekoa da, turkana hizkuntza ez dela ikastetxean lantzen, eta liburu-dendetara joatekotan, ezinezkoa dela turkanaz idatzitako umeentzako liburu bat aurkitzea. Hizkuntza horretan aurkitu daitekeen liburu bakarra Biblia da. Gabezia hau behatu ondoren, honen inguruko proposamen didaktiko bat sustatzeko beharra suertatzen da.

### **4.3 Proposamen didaktikoa**

#### *4.3.1 Nola eraiki material didaktiko antiarrazista?*

Gaur egun ipuinei ezin zaie ukatu hezkuntza-tresna boteretsu gisa duten balioa, bihar heldu izango diren haurren nortasuna, izaera eta bizitza osatzeko balio baitute. Ipuinek gauza onak eta txarrak erakusten dituzte. Funtzio hezitzaile garrantzitsua betetzen dute. Arestian ikusi dugun moduan, Turkanako tribuan ipuinak zein abestiak, hau da, ahozotasuna oso garrantzitsua da, bada, ezagutzak belaunaldiz-belaunaldi transmititzeko erabili izan den haien ezaugarri garrantzitsuenetariko bat da. Ezaugarri hauek hezkuntzan alde batera hutsi izan dira kolonizazioa eta honek ekarri izan dituen ondorioak direla eta.

Curriculum eurozentrikoak, Keniako hezkuntzak duen bezalakoa, dituen ezaugarriak kontuan izanik, ezinbestekoa da horiek aldatzea eta curriculum inklusiboago bat sortzea, arrazakeriaren kontrako hezkuntza bermatuz. Behar hau ikusiz, Grask (1988) gidaliburu txiki bat aurkezten du elementu eurozentrikoak eta arrazistak antzeman ahal izateko eta hauen inguruko kritika sortu ahal izateko:

- Protagonistak: Pertsonaiak nolakoak diren behatu behar da; hau da, pertsonaiak txuriak edo beste etniakoak diren. Bertan ere, behatu behar da ea beste arrazako



pertsonaia egotekotan zelako rola duen, rol garrantzitsu bat betetzen duen edo bigarren mailakoa den. Honekin batera, haien jarrera nolakoa den behatu behar da; txarrak edo onak, argiak edo ergelak, ausartak edo bihozgabea eta koldarra, etab.

- Pertsonaien deskribapena: Beste arraza batzuetako pertsonaiei haien giza duintasunarekiko errespetuarekin deskribatzen zaie edo aldiz, estereotipoak erabiltzen dira beste etniako pertsonaiak deskribatzeko? Honekin batera, pertsona eta etnia guztia banatuta agertzen den edo ez behatu beharko genuke; hau da, pertsonaiaren jarduerak deskribatzen dira, edo etnia guztiko jarduera edo ezaugarri moduan adierazten da.
- Bizi ohiturak: Nola adierazten dira etnia desberdinen ohiturak? Kontuan izan behar dugu testuliburuak orokorrean mendebaldeko idazleek idazten dituztela, beraz, beste kulturetako ohiturak gure ikuspuntutik deskribatzen dira, eta askotan, maila desberdin batean kokatzen dira, gureak ez diren kulturak modu estereotipatuan aurkeztuz. Honekin batera, kontakizunaren bi alderdiak jakin behar dira, bada, Grasak (1988) askotan kolonizazioaren ondorengo istorioak kontatzen dirala adierazten du, herrialde horien kolonizazioaren aurreko historia ahaztuz.
- Liburuaren mezua: “Testuak gutxienez miseriaren kausak ikertzen ditu, edo ipahego arazoak halabehar hutsaren kontura txikiagotzen ditu?” (3. or.).
- Ilustrazioak: Argazkiak herrialdeen zelako irudia ematen duen aztertu behar dugu, askotan, jadanik aipatu dugun moduan, estereotipoetara jotzen dutelako.
- Hizkuntza eta idazkera: Hitzak min asko egin dezakete. Askotan, nahiz eta konturatu gabe egin, mespretxuko hitzak erabiltzen ditugu, gure nagusitasun-rola mantentzeko.
- Autorea eta argitaletxea: “Hirugarren munduarekin” duten estutasuna aztertu beharko lirateke.

#### 4.3.2 *Ipuin eleanitza: ahozkoatasuna lantzen*

Ezaugarri hauek kontuan izanda, Kaikorreko 3 pertsonekin batera haurrentzako ipuin bat sortu genuen<sup>4</sup>. Ipuinaren helburua, haurren artean sortzen diren gatazkak lantzea da. Hau da, klasean ematen zen arazo bat oinarritzat hartuz, istorio bat sortu zen ikasleek horrekin identifikatuta sentitu ahal izateko. Hau aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa da haien kulturako pertsonak izatea istorioa sortzen dutenak, bestela,

---

<sup>4</sup>1. *Eranskinean* eskuragarri dago istorioaren ilustrazioak turkanaz, suajiliz eta ingelesez.

inkontzienteki kontrako jarreretan eror gintezke, asmo onekoak izan arren, baina paternalistak.

Istoria hau 3 hizkuntzetan idatzi zen. Hasieran, ikasleen ama-hizkuntzan idatzi zen, hau da, turkanaz. Ondoren, istorioa suajiliz eta ingelesez idatzi zen, bada, Kenian bizitzeko ezinbestekoak dira bi hizkuntza hauek, beraz, hauek errazago ikasteko nahian, jadanik haien hizkuntzan dakiten istorioa beste hizkuntzetan entzutea baliabide bat izan daitekeela ikusi genuen. Jarraian istorioa aurkitu daiteke turkanaz, suajiliz, ingelesez eta euskaraz:

### Turkanaz:

Agogoung akisub etich:

Kolong kaangorot alomito ngapesur ngaarei naanyaritae Wamutune ka napiakeng Wamwiru. Aminin lopit ekimwoon ka ekababaat. Ngikauriak Wamutune abarito lojojokon noi nabo lu Wamwiru eboosit noi.

Amina Wamutune Wamwiru lojojokon noi loger ka ngolo angialanakinio tani ngiwaroi ka akimuj dae tani alosukul alo asomie nges. Aos wamwiru lojojokon noi akidwang napiakeng Wamutune. Kanguna kadaangu pe asaki Wamutune akitiare etich keng agongo anakusom keng kotere ngikauriak keng abarito lojojokon noi. Nabo kaneni pe akachit nabo tani Wamwiru arotokinto ngesi ka akiswam keng ngaren jin jik Na anangia girwa llu akitiare emitian kech lo aesal akiswam kech, abu Wamwiru taany ngalemet nakajokak arumworet, abu Wamwiru kichany ekaas loti kajok noi nabo ka akingarakin ngikauriak keng ka nabo awi kech daang nakolong eboosit noi sodi topedosi kechi akilom lojojokon noi.

Nabo ka neni pe abu Wamutune topedo akiare etich keng lojojokon loger anapiakeng kotere pe asubit nges kolong etich keng lojojon noi pei ka neni dae tani akiswam keng. Ngalemet keng akalanyanut pe apedorito ngesi akinakin ngesi ngalemet nakajokak aloboyor keng ka nabo ngakiro na alimitere ngesi pe ajokak noi.

### **NGAKITATAMET A EKOI KA LO:**

Etatamas aruwor ngitunga lu kaagook anakusub ngitichisio yok.

### Suajiliz:

Kutia Bidii:

Hapo kale waliishi wasichana wawili. Wasichana hawa, walijulikana kama Wamutune na Wamwiru. Walipendana kama chanda na pete. Wazazi wa Wamutune walikuwa matajiri ilihali wale wa Wamwiru walikuwa masikini.

Wamutune alimpenda Wamwiru sana kana kwamba aliwaza kumgawia chakula na mavazi pia mle shuleni, Wamwiru alikuwa mwerevu sana ilihali, Wamutune hakufahamu chochote. Wamwiru alihakikisha kutia bidii kumsaidia rafikiye Wamutune. Licha ya hayo, Wamutune hakujali kutia bidii katika masomo yake kwani aliringa kwa utajiri wa wazazi wake. Wamwiru hakudinda kusoma bali alitia bidii Zaidi katika masomo yake.

Walipofanya mitihani, Wamwiru alipita vizuri badadaye, alibahatika kupata kazi nzuri nakuisaidia familia yake toka kwa umasikinii, ambapo waliweza kuishi vyema.

Wamutune hakupita mitihani kwa sababu hakutia bidii masomoni mwake. Majivuno yake ya kutosoma, yalimfanya kuwa na maisha mabaya na sifa zisizopendeza kamwe.

### **FUNZO**

Tujifunze kila wakati kuwa wenye bidii.

### Ingelese:

Hard work:

In the village of Mwiki, lived two friends, Wamwiru and Wamutune. Wamwiru was very clever in school though she was from a poor family, while Wamutune was performing very poorly in school because she never took her studies seriously because her parents were very rich. Wamwiru always tried to help Wamutune in school, but Wamutune never liked to study. She was very proud and said that even if she didn't study they had everything. She was only wasting all her time boasting about their wealth. She was always laughing at Wamwiru and telling her that she didn't need to study because her parents were poor and they didn't have money to take her to the university even if she passed very well her exams. But Wamwiru never paid attention to these discouragements. When they did their exam, Wamwiru passed very well and she got a

sponsor who paid for her education and later she secured a nice job and helped her parents out from their poverty.

Wamutune never got a chance to go to the university and her parents were not happy about it. They tried their best for their daughter but they did not succeed. Wamutune became a useless person because no man wanted to be associated with an illiterate person. She regretted because she never worked hard in school.

**MORAL LESSON:**

- 1: Never pay attention to people who discourage you.
- 2: Hard work pays off.

**Euskaraz:**

Langilea:

Mwiki herrian bi lagun bizi ziren, Wamwiru eta Wamutune. Wamwiruren familia oso pobrea zen, baina berari oso ondo joaten zitzaion eskolan. Aldiz, nahiz eta Wamutuneren familia oso aberatsa izan, oso gaizki joaten zitzaion eskolan. Wamwiru Wamutune ikasketekin laguntzen saiatzen zen, baina honek ez zuen ikasi nahi. Wamutuneren familiak diru asko zuen, beraz, bera oso harro zegoen, eta aberats izanik, dena bazuela uste zuen, ondorioz, berarentzat ez zen beharrezkoa ikastea. Gainera, Wamwiruri barre egiten zion, hainbeste ikasi beharrik ez zegoela esanez, familiak ez baitzuen dirurik, eta asko ikasi arren, ezin izango baitzen unibertsitateara joan. Halaber, Wamwiruk aurrera jarraitzen zuen Wamutunen hitz txarrak kontuan izan gabe. Azterketak egin zituztenean, Wamwiruk nota oso onekin gainditu zituen, eta horri esker, pertsona batek bere ikasketak ordaintzen lagundu zion. Horri esker, Wamwiru hazi zenean, lan ona lortu zuen eta familiari pobreziatik ateratzen lagundu ahal izan zion.

Wamutunek, aldiz, ez zituen nota onik atera, beraz, ez zioten unibertsitatean onartu. Hori jakitean, bere gurasoak oso triste zeuden, alabarentzat onena nahi baitzuten, baina honen harrotasuna dela eta, ez zuten lortu. Azkenean, Wamutunek lanik gabe geratu zen, ez baitzen inoiz pertsona langile bat izan.

**MORAL:**

Ez utzi inori zure autoestimua suntsitzen. Zure ametsetan indarra bilatu.

Gogor lan egiteak, bere ondorioak dakartza.

Istoriolan agertzen diren protagonistek bertakoak dira eta bertako izenak daramate. Aipatzekoa da Kaikorren turkanaz idatzitako izenak ematen dietela jaiotzerakoan, baina gero "kristau izenak" jartzen dizkiotela, hau da, haien izenak alde batera uzten dira eta jatorri ingelesa duten izenak jasotzen dituzte. Horregatik garrantzitsua da istorioko pertsonaiek haien izen propioak edukitzea, horrela hauen garrantzia ikusi ahal izateko. Pertsonaien ezaugarriei dagokionez, bertan kaletik ikusi dezakezun edozein pertsonako ezaugarriak dituzte, bai istoriolan, bai harekin doazen ilustrazioetan ere, Grasak (1988) aipatzen duen bezala. Honi dagokionez, aipatzekoa da ilustrazioak sortzerako prozesuan arazoak egon zirela, bada, bertako irakasleek pertsonaien azala mendebaldeko pertsona baten azal-koloreaz margotu nahi zutelako. Beraz, kontzientziario prozesu bat egin behar izan zen, bada, Coelhok (2016) esaten duen moduan, ezinbestekoa da larruzal kolore ezberdinen margoak aurkeztea. Bertan ohituta daude liburuetakoko pertsonaiak horrela ikustera, baita ile leuna eramatera haiek daukaten kizkurraren orde. Pertsonaiei izena jartzerakoan ere, hasieran, haien hizkuntzako izenak jarri zizkieten, baina, ipuina garbira pasatzerakoan, izenak aldatu nahi zituzten. Jarrera hauetan ikusten da zelako eragina daukan gaur egun oraindik kolonialismoak.

## **5. Ondorioak**

Kolonialismoa herrialde eta kultura pobretu askotan kalte handia egin duen prozesua da. Herrialde gutxi batzuen berekoikeria zibilizazio askoren tradizioen suntsipenaren eragilea da, honela euren kultura propioaren deserrotzea eraginez, aurreko puntuetan ikusi dugun moduan. Gaur egun, globalizazioa erraztasun asko ematen dizkigu, hori onartu behar dugu, baina nori ematen dizkio erraztasun horiek? Ematen ari den prozesuaren ondorioz, herrialde askotariko identitate-zigiluak desagertzen ari dira. Horregatik, beharrezkoa da geure buruari galdetzea ea globalizazioa benetan gauza onak baino txar gehiago ematen dizkigun prozesua den.

Kolonialismo prozesua aurrera eramateko baliabideetariko bat hezkuntza izan dela ikusi dugu. Halaber, Nelson Mandelak (2002) zioen bezala, hezkuntza mundua aldatzeko armarik boteretsuena ere dela ikusi dugu, eta garapen pertsonalerako motor gisa balio duela ere, gizabanako bakoitzak askatasun osoz erabaki ahal izan dezan zer

etorkizun izan nahi duen. Honen harira, historian zehar gertatukoaren inguruko ikuspegi desberdinak edukitzea garrantzitsua da; izan ere, Adichiek (2018) dioten bezala, ikuspegi bakar batek, istorio bakar batek, ez du inoiz egia izango. Eta orain arte, istorio horiek herrialde irabazleen aldetik kontatu dira, herrialde inperialisten aldetik, baina hori aldatzeko garaia iritsi da.

Hezkuntzak bizi garen mundua eta gure inguruan gertatzen dena hobeto ulertzeko aukera ematen digu, ikuspegi askotatik, eta ez bakarrik kontatzen digutenetik. Pertsona baten formakuntza lehenengo galdera batekin hasten da, eta azken galdera batekin amaitzen da; prozesu horrek bizitza osoa iraun dezakeela, eta iraun behar duela, esan nahi du. Bizitza etengabeko hazkunde-prozesu bat da, ez gara jaiotzen eta hiltzen modu berdinean, baizik eta gure nortasuna eraikitzen joaten gara bidean zehar, eta jaiotzen garen gizartea eta gure bizitzan zehar ditugun eta eragiten dizkiguten esperientziak erabakigarriak dira eraikuntza honetarako.

Gizartean dagoen arazoa historian zehar eman den manipulazioa da. Horregatik, garrantzitsua da pertsona kritikoak izatea eta heztea. Izan ere, Freirek (1970) esan zuen bezala, herria isilik dagoenean, boteretsu gutxi batzuek beraiek nahi dutena suntsitzeko eta inposatzeko aprobetxatzen dute. Kaikorren gizonek argi dute emakumeak eskolara joaten direnean kritikoagoak, errebeldeagoak eta kontrolaezinagoak direla, eta hori da beraiek nahi ez dutena, emakumeak aske bizitzea. Horregatik, hezkuntza oinarrizko eskubidea da edozein pertsonarentzat, horrela alienazio-prozesurik gerta ez dadin, eta horretarako, ezinbestekoa da hezkuntza pertsonari hurbiltzea haien ama-hizkuntzan.

Turkanako haurren ama-hizkuntzan eguneroko alderdiak lantzeko materialik ez daudenez, ezinbestekoa da bertako pertsonak ahalduntzea, eta beraiek beren istorioak kontatzeko aukera ematea proiektu bati ekinez. Seguru asko, hori beste bitarteko batzuen bidez landu daiteke, baina ipuinak baliabide onak dira lehen hezkuntzako lehen zikloetako haurrekin lan egiten hasteko.

Garrantzitsua da ulertzea hizkuntza eta kultura elkarren eskutik doazela, eta, bi kontzeptuen arteko harreman estuaren ondorioz, beharrezkoa dela osagai kulturala ikasgeletan oso presente egotea. Eta osagai kulturala ikasgeletan garrantzia hartzen ari den bezala, literaturaren erabilera ere garrantzia hartzen ari da. Gero eta irakasle gehiagok aukeratzen dute tresna horren erabilera beren eskoletan elementu didaktiko eta motibatzaile gisa. Literaturaren bidez osagai soziokulturala lantzeko material gabeziaren ondorioz, lan honetan, kultura minoritario baten erreferenteak edukitzeko jarduera bat proposatzen du. Turkana kulturaren alderdiak lantzen jarrai liteke, adibidez,

inguruko pertsonaia garrantzitsuei buruzko informazioa bilduz (idazleak, txamanak, abeslariak, narratzaileak, etab.), baina lan honen espazio mugak direla eta, beste baterako utzi dira. Hala ere, 2. eranskinen hirugarren argazkian ikus daitezkeenez, alfabeto bat marraztu zen, hezkuntza-legearen arabera ingelesez egin behar izan zena, hala ere, ikasgelara bertaratutako pertsonak identifikatuta sentitzeko edo identifikatzeko aukera ematen duten ilustrazio eta hitzekin osatuta dagoena. Proiektu txiki hori alfabetoaren inguruan zituzten karteak pianoa bezalako irudiak zituztelako egin zen, hau da, eskola horietako ikasleek ikusi ez dituzten eta, beharbada, inoiz ikusiko ez dituzten gauzen inguruko ilustrazioak erabiltzen zituzten alfabetoa irakasteko. Egoera hori ikustean, material berriak sortzeko beharra ikusten da, Solano-Alpízarrek (2015) aipatzen duen epistemozentrismoari aurre egiteko. Horregatik, curriculumean osagai kulturala sartzea ezinbestekoa da; izan ere, "benetako komunikazio-gaitasuna lortzeko, ikasleek hizketa-ekintza ororen azpian dagoen errealitate soziokulturala ezagutzen ikasi beharko dute" (Barros, 2005, 12 or.).

### **5.1 Mugak eta hobetze proposamenak**

Planteatu den proposamen didaktikoa erraza irudi arren, ez da hain erraza aurrera eramatea. Zaila da proposamen hori kultura horretakoa ez izanda aurrera eramatea, izan ere, nahiz eta asmo onak eduki, beti erori gaitzke paternalismo edo ingelesez esaten den *white savior complex*-ean (salbatzaile zuriaren konplexuan). Aipatzekoa da istorio hau sortu aurretik beste asko idatzi zirela, baina azkenean agerian zegoen ez zirela beraiek sortutako istorioak, baizik eta lanaren egile honen pentsamenduak haien bidez kontatuak zirela. Izan ere, batzuetan zaila da bazterrean geratzea. Gainera, hasieran proposatutako gaien artean bortxaketak, hilketak... agertzen ziren. Bada, Turkanako pertsonak kontatu ohi dituzten istorioak horrelakoak izaten ohi dira, horrelako gertakari asko ematen direlako, batez ere, mugako liskarrei eta aurkaria hiltzeko moduari buruzkoak direnak. Honen ondorioz, istorioak ere, Coelhok aipatzen duen moduan, "azaldu behar da besteen eskubideak zanpatzen dituzten kultura-jardunbideak ez direla onargarriak ez moralki, ez legez" (2016, 230 or.). Beraz, bortxaketen inguruko istorioak onartezinak dira.

Hasieran, hurrei liskarren inguruko istorio horiek kontatzen zaizkietela jakitea zaila da, indarkeria bultzatzen aritu zaitezkeelako, baina horiek beharrezko ezagutzak dira herrialdeen mugetan bizi diren pertsonentzat, batez ere, hil edo hil egiten zaituzten lurralde batean. Horregatik, garrantzitsua da alde batera geratzen jakitea, haiei beren

istorioak kontatzen uzteko. Hala ere, baheketa bat egin behar dela uste dut. Noski, haien istorioak sortu behar dituzte, baina ahalegindu behar gara istorioek gaur egungo denborari lotuta egotea, hezteko ondorio bat edukiz. Horregatik, ezberdintasun bat egin genuen mendian bizi diren eta herrixkan bizi diren pertsonen artean; izan ere, haiek kontatzen dituzten istorio gehienek mendietako bizimodua nolakoa den azaltzen dute, lehen horiek pertsona guztiek bizirauteko behar zituzten istorioak zirelako, baina istorio hau bereziki eskoletara joaten diren haurrei eta haietan sortzen diren liskarrei zuzenduta dago.

Beraz, aurkeztutako proposamenaren helburua osagai kulturalak ikasgelan duen eginkizuna berriz ebaluatzea eta material berriak sartzeta da, bizitzako eguneroko alderdiak landuz, ikasleek jaio eta hazteko erabiltzen duten hizkuntzaz baliatuz. Jarduera horrekin, halaber, irakasleen ahalduntzera eta tradizionala den irakaskuntza-eredu batekin esperimentatzera animatzen dira, beraien material propioak sortuz. Garrantzitsua iruditu zitzaigun hau pertsona bakar baten zeregina ez izatea, izan ere, hainbat pertsonaren artean istorio bat eraiki daiteke ikuspegi desberdinetatik eta horrela pentsamendu desberdinak lotuz. Honekin lotuta, Afrikako kultura gehienak matxistak dira. Hau da, gizonezkoek botere guztia dute, nahiz eta emakumezkoek lan guztia egiten dutenak izan. Aintzinean, gizonezkoek gatazketan parte-hartzeko edo familia babesteko betebeharra zuten eta horregatik zen hain garrantzitsua haien burua, baina gaur egun, ez da horrelakorik gertatzen, hala ere, haiek esandakoa egin behar da. Horregatik, arestian esan dugun moduan, garrantzitsua da pertsona bat baino gehiago istorioa sortzea, eta kasu honetan, bi emakume eta gizonezko batek parte hartu dute prozesu honetan. Sortzeko prozesuan beharrezkoa zen kultura horretakoa ez den norbait egotea, bestela, gizonek emakumeak nahi duena egitera eta esatera behartu ditzake; baina beste kultura bateko pertsona bat egonik, bi sexuen artean bitartekari moduan jokatu dezake.

Lan honetan, istorioa sortzeko prozesua da gehien hobetu behar dena, bada, jadanik esan dudan moduan, oso erraza da paternalismoan jaustea eta batez ere, gure mendebaldeko pentsamendua istorioan plazaratzea. Honekin batera, istorioa sortu duten irakasleek ere, mendebaldeko materialekin hazi dira, beraz, zelan jakin dezakegu ipuin hauek beren ikasketa-urteetan ezarri dieten pentsamenduen eraginik ez dutela?

Bestetik, COVID-19-ak eragin handia eduki du lanean, bada, Keniara heldu bezain laster, ikastetxeak itxi zituzten eta proiektu bat sortzeko denbora murriztu zen. Horretaz aparte, nire indarrak ere proiektu honetatik kanpo gelditu ziren, bada, momentu horretan lan hau ez zuen hainbeste garrantzia bertan pandemiaren ondorioz pairatzen hari ziren



sufrimenduaz alderatuz. Beraz, denboraldi horretan musukoak josten, janaria banatzen, putzuak konpontzen, xaboia egiten, etab. ibili ginen. Halaber, nahiz eta proiektua martxan jarri zenetik bi hilabetera ni joan izana, irakasleei emandako formakuntza bati esker (ikus 2. eranskineko laugarren argazkia), istorio hau beste hainbaten lehenengokoa baino ez da, eta lanaren bidez lortu nahi genuen helburua betetzen ari da: ez da istorio bakar-bat, baizik eta abian jarri den proiektu berri bat, zeinen bidez bertako irakasle irudimentsuek haien istorio propioak sortzen jarraitzen duten, haien kulturako ezaugarriak eta hizkuntza propioa bertan islatuz. Hala ere, ibilbide luzea egin behar da, proiektuaren jarraipena egin behar baita, eta zaila da behar den leku guztietara iristea. Baina Turkanako pertsonak oso erresilienteak dira eta proposatzen duten guztia egiteko gai dira, beraz, ez dut zalantzarik proiektu hau gauzatzen joango diren beste askoren artean lehenengoa baino ez dela.

## 6. ERREFERENTZIAK:

- Adichie, C.N. (2018). *El peligro de la historia única*. Penguin Random House.
- Barros, P. (2005). *La competencia intercultural en la enseñanza de las lenguas*.
- Beckford, R. (2016). *The Empire Pays Back*, BBC dokumentala.
- Césaire, A. (2006). *Discursos sobre el colonialismo*, AKAL.
- Coelho, E. (2016). *Eskola kulturantzunetan irakastea eta ikastea*, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Cunningham, M. (2006). Colonial Echoes in Kenya Education: A First Person Account. *Standford Undergraduate Research Journal, Spring 2006*, 37-44.
- Curtis, M. eta Jones, T. (2017). El mundo se beneficia de la riqueza de África. <https://ctxt.es/es/20170621/Politica/13372/Africa-expolio-riqueza-ayuda-occidente.htm> -tik 2020-09-20an berreskuratua.
- Experiencias educativas. (2018). La importancia de la literatura para el desarrollo del niño. E.I. LOS PALITOS. <https://koalaescuelas.es/lospalitos/importancia-de-la-literatura-para-el-desarrollo-del-nino/> -tik 2021-06-06 berreskuratua.
- Freire, P. (1970). *Pedagogía del oprimido*. Siglo XXI, Argentina.
- Grasa, R. (1988). *El racismo en los libros infantiles y juveniles*. Biblioteca virtual Luis Ángel Arango.
- Kenya Institute of Curriculum Development (KICD), (2017). *Basic Education Curriculum Framework*. Republic of Kenya.
- Mandela, N. (2002). La educación es el arma más poderosa con la que puedes

cambiar el mundo. <https://www.africafundacion.org/la-educacion-es-el-arma-mas-poderosa-con-la-que-puedes-cambiar-el-mundo> -tik 2021-06-05

berreskuratua.

Martínez, J.U. (1985). *El reparto de África: la colonización. Historia*, 16, 54-60.

<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1028967>-tik 2020-07-17an

berreskuratua.

Moreno García, J. (1985). *La Conferencia de Berlín y el reparto colonial de África.*

Díez, A.R. (Koord), *Zientzia eta Afrikako meromia: espedizio zientifikoen eta Espainiako afrikanismoaren gaineko III. Jardunaldietako aktak*, 131-144. Madril.

Pine, G. eta Hilliard, A. (1990) Rx for racism: imperatives for America's schools. *Phi Delta Kappan*, 71, 8, orr. 601-606.

O'Herne, D. eta Nozaki, Y. (2014). *Natural Science Education, Indigenous Knowledge, and Sustainable Development in Rural and Urban Schools in Kenya.*

Sense publishers.

Restrepo, E. eta Rojas, A. (2010) *Inflexión decolonial: fuentes, conceptos y cuestionamientos.* Universidad del Cauca.

Silva, A. (1976). *Paulo Freire: una educación para la liberación.*

Sonalo- Alpizar, J. (2015). Descolonizar la educación o el desafío de recorrer un camino diferente. *Revista electrónica Educare (Educare electronic journal)*. 19 (1). 117-129.

Vázquez, B. (2013). Educación decolonial-liberadora. *Revista de Historia, Geografía, Arte y Cultura*. 2, 177-196.

## **7. Eranskinak**


### **7.1 Ipuina ilustrazioekin**

Jarraian, ipuina kontatzeko sortutako ilustrazioak aurkezten dira. Hauek, lanean esan bezala, bertako pertsonen egindakoak dira.

Agoeung akisub etich  
Kulia Bidii  
Hardwork



- Kolong kaangeret alomilo ngapesur ngarzi naanyaratae Wamutune ka napaikeng Wamwizu.
- Hape kale waliishi wasichana wawili. Wasichana hawa walijulikana kama Wamutune na Wamwizu.
- In the village of Mwiki lived two friends Wamwizu and Wamutune.



- Walipendana kama chanda na pete. Wazazi wa Wamutune walikuwa matajiri ilihali wale wa Wamwizu walikuwa masikini.

- Wamwizu was very clever in school though she was from a poor family, while Wamutune was performing very poorly in school because she never took her studies seriously because her parents were very rich.

Aminin lopit ekimwoon ka ekababaat. Ngikauriak Wamutune abarito  
lokojoken noi nabo lu Wamwiru eboosit noi.



-Wamutune alipenda Wamwiru sana kana kwamba aliwaza kungawia  
chakula na mavazi pia mle shuleni, Wamwiru alikuwa muwazazi sana  
ilibali, Wamutune hakufahamu chochote. Wamwiru alihakikisha kutia bidii  
kumsaidia zafikiye Wamutune. licha ya hayo, Wamutune hakuyali kutia bidii  
katika masomo yake kwani aliringa kwa utajiri wa wazazi wake.

-Wamwiru always tried to help Wamutune in school but Wamutune never  
liked to study, she was very proud and said that even if she doesn't  
study they have everything. She was only wasting all her time boasting  
about their wealth. She was always laughing at Wamwiru and telling her  
no need for her to study because her parents are poor and they don't  
have money to take her to the university even if she passed very well  
her exams. But Wamwiru never paid attention to this discouragements.

Amuna Wamutune Wamwizu lokojoken nei loqer ka nqolo anqalanakinio tani nqiwazoi ka akimuy doe tani alo sukul alo asemie nqes. Aos Wamwizu lokojoken nei akidwang napiakeng Wamutune. Kanquna kadoangu pe asaki Wamutune akitiaze elich keng apengo arakusom keng koteze ngikawziak keng abazite lokojoken nei. Nabo kaneni pe akachit nabo tani Wamwizu azotokinto ngesi ka akisuwam keng nqarzen jin jik.



- Wamwizu hakudinde kinoma bali alitia bidu. Zaidi katika masomo yake. Walipofanya mitihani, Wamwizu alipata uzuri. Bodadaye, alibahatika kupata kazi nzuri nakuisaidia familia yake toka kuwa umasikini, ambayo waliinweza kuishi vyema.



- When they did their exam, Wamwizu passed very well and she got a sponsor who paid for her education. Later she secured a nice job and helped her parents out from their poverty.

Na anangia giruwa lhu akitiare emition kech lo aeral akiswam kech, abru Wamuziru taany ngalemot nakajotok azumworet. Abu Wamuziru Kichany ekaas beti kajok noi nabo ka akingazakin ngakawriak keng ka nabo auri kech daang nakolong ebosot noi sedi topedosi kechi akilom lokojokon noi.



- Wamutune hakupita mitihari kuwa sababu hakulia bidii masomoni mwake. Majimuno yake ya kutosoma, yalimfanya kuwa na maisha mabaya na sifa zisizopendeza kamwe.

- Wamutune never got a chance to go to the university and her parents were not happy about it. They tried their best for their daughter but they did not succeed. Wamutune became a useless person because no man wanted to be associated with an illiterate person. She regretted because she never worked hard in the school.



## 7.2 Argazkiak



1.ARGAZKIA: *Nairobiko supermerkatuan topatu daitezkeen liburuak.*





2. ARGAZKIA: Kaikorreko ikastetxearen irakasleen eraikina, kolonizazioaren garaian eraikita.



3. ARGAZKIA: Kaikorreko ikasgela batean sortutako alfabetoa.



4. ARGAZKIA: *Kaikor eta inguruko finkapenetako ikastetxeetan lan egiten duten irakasleentzako formakuntza.*